

FITXA: 229 - GIPUZKOA - Gipuzkoako Lurralde Historikoan energia-komunitateak sortzea eta haiek egindako inbertsioak abian jartzea sustatzeko dirulaguntzak.

Nori zuzendua:

A programa (Energia komunitateak sortzea eta kudeatzea kideak nagusiki jarduera ekonomikorik gabeko pertsona fisikoak direnean, eta haiekin lotutako instalazio fotovoltaikoetan, hauetan sortutako energiaren biltegitratze sistemetan eta mugikortasun elektrikoko zerbitzuetan inbertitzeko):

- a. Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dagoen eta nortasun juridikoa, legala eta baliozkoa duen edozein erakunde publiko edo pribatu, baldin eta soil-soilik energia-komunitate bat sortzeko eskatzea erabakitzen badu, edo, gainera, erkidego horri lotutako instalazio fotovoltaikoak, biltegitratzea eta/edo mugikortasun elektrikoko zerbitzuetan inbertitzea erabakitzen badu.
- b. Nagusiki jarduera ekonomikorik gabeko pertsona fisikoek osatutako komunitate energetikoa, dirulaguntza honen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik sortua, eta diruz lagundu daitezkeen jardueretako bat edo batzuk egitea erabakitzen duena.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/04/30
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziatzko araudia: 2026ko apirilaren 14ko Erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/04/30/c2602516.pdf>

Eragin eremuak: Energia

Zenbatekoa: 1.035.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/05/01

Aurkezteko azken eguna: 2026/06/01

Aurrerakina:

Onuradunadagoeneko sortuta dagoen eta nagusiki jarduera ekonomikorik gabeko pertsona fisikoek osatzen duten energia-komunitate bat denean, zenbatekoaren % 75eko lehen ordainketa aurreratua egin ahal izango da, abalen beharrik gabe.

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Aldakorra, **Gutxieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu.
jarduera motaren arabera.

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia: Gipuzkoako Lurralde Historikoan energia-komunitateak sortzea eta haiek egindako inbertsioak abian jartzea sustatzekoak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a. Energia komunitateak errazago eratu eta kudeatzekoak.
- b. Honako bi inbertsio-mota hauek egiten laguntzera bideratutakoak:
 - * Eguzki-energia fotonvoltaikoko instalazioak, autokontsumo kolektiboko erregimenean, eta horiei egokitu dakizkiekeen biltegiatze-sistemak.
 - * Mugikortasun elektrikoko zerbitzuak.

Jarduera-ildoak

Energia komunitateak errazago eratu eta kudeatzekoak, zehazki:

- * Energia komunitateak eratzeko partaidetza prozesuak antolatzea.
- * Abian jarri nahi diren energia komunitateei buruzko informazio kanpainak.
- * Interesdunen aurreinskripziorako behar diren bitartekoak prestatzea (web orriak, inskripzio orriak, etab.).
- * Energia komunitatearen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa eta hartuko diren gobernantza aukerak aztertzea.
- * Energia komunitatea eratzeko legezko dokumentuak idaztea eta inskribatzea (estatutuak, eskritura publikoak, etab.).
- * Energia komunitateei lotu nahi zaizkien eguzki energia fotonvoltaikoko instalazioen bideragarritasun azterketak.
- * Energia-komunitateak mugikortasun elektrikoko zerbitzuak garatzeko bideragarritasun-planak eta/edo -azterlanak.
- * Energiaren sorkuntzaren, biltegiatzearen eta energia-komunitatearen beraren kontrolerako eta kudeaketarako dauen azterketak eta aplikazioak.
- * Txosten juridikoak egitea eta akordioak idaztea energia komunitateei lotu nahi zaizkien eguzki energia fotonvoltaikoko instalazioak kokatzeko beharrezkoak diren estalkiak eta/edo

lurrak lagatzeko.

* Energia komunitatea eratzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren web orriak edo informatika aplikazioak diseinatzea eta lantzea.

* Komunitate energetikoaren kudeaketa eta dinamizazioa, behin sortuta dagoenean.

Mugikortasun elektrikoko zerbitzuak, zehazki:

* Auto elektrikoa kargatzeko puntuak instalatzea, energia-komunitateko kideei zerbitzua emateko.

* Ibilgailu elektriko puruak erostea, zuzenen edo leasing bidez, lehentasunez energia-komunitateko kideek elkarrekin erabiltzeko.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren ordainketa laguntzaren oinarri den jarduketa betetzearen baldintzapean egon da eta ordainketa bakar batean egingo da dirulaguntzaren zenbateko osoarekin, behin, deialdiaren urtearen urriaren 31ren aurretik, hurrengo apartatuan zehazten den dokumentazio zuritzailea aurkeztuta.